

ERKOREKAK HAUXE DIO

EHBilduk aspaldian eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Institutio, Segurtasun eta Justizia Batzordean, urriaren 27an, Josu Erkorekak egindako agerpena jarraitzeko aukera izan genuen EAEko Justizia Plataforma sindikalaren ordezkariok.

JUSTIZIA PLATAFORMA SINDIKALAREN PRESENTZIA

Ez ziren txikiak gainditu beharreko oztopoak. Legebiltzarreko Protokolo bulegoak ukatu baitzigun areto bat agerpena jarraitu ahal izateko. Garbi utzi zuten ez zutela gustuko ordezkariak sindikala bertan egotea. Azkenean, EHBilduk bulegoa utzi zigun eta hortik jarraitu genuen agerraldia. Horri esker, amaieran, EAJren bulegora hurbildu ginen eta Erregistro Zibilaren langileek jasotako pribatizazioaren aurkako 10.000 sinadura Erkorekari emateko eta elkarrizketatxo bat izateko parada izan genuen.

2011/20 LEGEAREN BALIOTASUNA ONARTZEN DU ERKOREKAK

Agerraldian, Erregistro Zibilaren 2011/20 Legeari buruz ordu erdi bat mintzatu ondoren, Erkorekak behin eta berriz errepikatu zuen Autonomia Estatutuan ez zegoela eskumena jaso. Nahiz eta, azkenean, onartu zuen lege horrek ahalbideratzen duela Erregistro Zibila mantentzea Justiziaren administrazioaren baitan, inolako aldaketarik egiteke. Hori bai, desjudizializatu ondoren eta Idazkarien edo kudeatzaileen ardurapean.

Baita onartu zuen ere, ez zela beharrezkoa Autonomia Estatutua aldatzea (aurretik esan arren bakarrik horretarako aldatzea ez zuela zentzurik) eta nahikoa dela lege bat Autonomi erkidego guztiek jaso ahal izateko Erregistro Zibilaren eskumen betearazleak. Amaitzeko, esan zuen, hau horrela dela, ez berak diolako, baizik eta, berak baino ezagutze maila handiagoa duten adituek hala esan diotelako.

Julen Arzuaga EH-Bilduren parlamentariak galdegin zion ea zer urratsak egin dituen Eusko Jaurlaritzak Erregistro Zibilaren 2011/20 Legearen moratoriak iraun duen bitartean, hots, azken hiru urteetan. Ikusita ezer gutxi egin duenik, aurpegiratu zion aldaketa guztiak onartu duela (2011/20 Legearen aldaketa, 2015ko uztailean E. Z. pasako da merkataritza erregistratzaileen eskutara; lege horrek Autonomi Erkidegoek E. Z.ren kudeaketa bere gain hartzea ahalbideratzen zuen). Baina ez zuten inongo, are gutxiago, imajinazioz beteriko proposamenik egin. Kontseilariak horrelako proposamenak gustuko ditu nonbait.

Berriro, hasierako arrazoiak entzun genizkion. Halere, Erkorekak gaineratu zuen EAJk legeari babesa eman zionean pribatizazioa ez zela helburu. Eta zer administrazioak hartu beharko zuen bere gain Erregistro Zibila.. esamesa ugari zeudela: udalak, Administrazio Orokorra, gero Justizia administrazioa...

Halabaina, Miren Gallastegirentzat (PSE-EEko parlamentaria, eta orduan PSOEk Gasteizen eta Madriden gobernatzeko zituen) esamesak baino aukerak ziren. Bere ustez, helburu bakarra desjudizializazioa zen, eta ondorioz, pribatizazioa erabat baztertua zegoen.

LAN POSTUEN MANTENTZEA

Langile kopurua mantenduko duela hitza eman du Erkorekak. Hau da, langile titularrak eta bitartekoak, errefortzuzkoak ez. BJBn lanpostu gehiago beharrezkoak izango baitira.

Halere, Erregistro Zibila pribatizatzen bada zer gertatuko da bitarteko langileekin galdegin genionean erantzun zuen bitarteko langileek badakitela zer baldintzetan dauden (hots, gaur hemen eta bihar han). Horrek esan nahi du pribatizazioak aurrera egin ezker, plantilako langileen kopuru osoa kontutan hartuko dutela, ez erregistro zibilean jarduten duten langile jakinak.

Ezin dugu nahikoa egin dugula esan edota politikarien eskuetan utzi Erregistro Zibilaren etorkizuna. Gehiengo osoarekin, PPK Madriden duen bezala, nahi dutena egin dezakete baina mobilizazioen bitartez atzera bota dezakegu pribatizazioa. Kontutan hartu behar dugu beste alderdi politiko guztiak aurka daudela ere. Eta erregistro Zibila pribatizatzen ez bada, bi lorpen lortuko genituzke: bat, zerbitzu publiko, kalitatezko eta doakoa mantentzea eta bi, ez soilik langile kopurua mantentzea, baizik eta handitzea: BJBk behar dituen lanpostu berriak sortuz.

Legebiltzarreko PPKo eledunak esan zuen gai hauek beste foru batean tratatu behar direla, ... Madrileko Gorteetan ulertu genion.

ERKOREKAREKIN IZANDAKO ELKARRIZKETA

Agerraldia amaitu eta sinadurak eman ostean, LABeko ordezkari batek esan zion moratoria luzatzea zela lortu beharreko lehen helburua. Horrela Erregistro Zibila ez da Merkataritza erregistratzaileei inoiz pasako. Halaber, argitu zion 20/2011 Legeak ez duela ahalbideratzen Erregistro Zibilaren arduraduna kudeatzailea izatea, A taldeko funtzionarioak izan behar direlako. "Orduan, legea aldatzen dugu" esanez, ziria sartu nahi zigun. Hitzik ez.

ONDORIOAK

Agerraldian zehar, Erkorekaren mintzaera luzea izan bazen ere, garbi geratu zen oso laburrak izan dela ekintzetan, ez du ezer egin. Eta ikusteko dago ea zerbait egiten duen hemendik aurrera eta betetzen duen egindako promesa: EAEko beste alderdi politikoekin batera lan egitea eta guztion artean defenditzea: transferentziaren proposamena, E. Z. ez pribatizatzeko eskakizuna

Bada garaia E. Z.ren pribatizazioaren aurka arduradun politikoek bat egin dezaten langileen borrokarekin eta moratoria berria eman dezaten, gutxienez, hauteskunde orokorrak egin arte. Eta ondoren, beste alderdi politikoek aukera izango dute demostratzeko noraino dauden Erregistro Zibilaren pribatizazioaren aurka.